



LARUNBATEAN HASIKO DA HONDARTZA DENBORALDIA

Datorren larunbatean hasiko da, ofizialki, Donostiako hondartza denboraldia. Ohikoa denez, zerbitzu guztiak ez dira egun horretan hasiko, olanak, eguzkitakoak eta itzalkinak zain egongo baitira ekainaren 15a arte.

Larunbatean, **sorospen zerbitzua** hasiko da hondartzetan, 10:30etik 19:30era ekainaren lehen hamabostaldian eta irailaren azken hamabostaldian. Denboraldiko gainerako egunetan, ekainaren 15etik irailaren 15era, 10:00etatik 20:00etara luzatuko da sorosleen ordutegia. Aurtan, BPXport enpresa arduratuko da hondartzak zaintzeaz, lehiaketa publikoa irabazi ondoren. Gurutze Gorria ez zen aurkeztu. 22 sorosle arduratuko dira Donostiako hondartzetako zaintza beharrez: 7, Kontxan; 6, Ondarretan eta Uhartean; 9, Zurriolan. Horrez gain, hondartzako koordinatzaile bat, hiru ontziko patroli eta koordinatzaile orokor bat izango dira. Guztira, 29 langile.

Ekainaren 15etik abuztuaren 31ra izango da Kontxako **bainu lagundua**, 11:00etatik 19:30era. Gainera, berrikuntza modura, irailaren lehen hiru asteburuetan ere izango da zerbitzu hau.

Prentsa oharra

Nota de prensa

Hondartzetako **aldagela kolektiboak** ere udako ordutegira egokituko dira; ekainean eta irailean, 09:00etatik 20:00etara, eta, uztailan eta abuztuan, 09:00etatik 20:30era.



Gainera, indartzekoa da **hondartza garbiketa**. Zerbitzu hori egunero ematen du udalak, baina sendotu egiten da hondartza denboraldi ofiziala hasteaz batera. Hala, Miguel Ángel Díez hiri zerbitzuetako zinegotziak adierazi duenez, hiru hondartzak gauez galbahetuko dituzte, eta goizeko 10ak baino lehen amaitu beharko dute beti, erabiltzaileei hondartza erabilera eta gozamina ahalik eta gutxien oztopatzearren.

Ordu horretatik aurrera, eskuz garbituko dute, paperontziak hustuko eta sarbideak nahiz Kontxa hondartzako arkupea erraztatuko. Gabarroiak ere garbituko dituzte, eta flotagarriak ontzi batez bilduko dituzte, 18:00ak arte zerbitzuari eutsita. Guztira, 22 langile aritzen dira, egunero, hondartzak egoera onean iraunarazten.

Aurten, 10 “uharte” jarriko dira hondartza bakoitzean, hondakinak gaika biltzeko. Berritasun moduan, edukiontzi bat izango da hondakin organikoak jasotzeko.

Prentsa oharra

Nota de prensa

Olanak, eguzkitakoak eta itzalkinak ekainaren 15etik irailaren 15era egongo dira eskuragarri.

HONDARTZA	OLANAK	EGUZKITAKOAK	KARPAK
KONTXA	440		
ONDARRETA	424	198	98
ZURRIOLA	240		
OKUPATUTAKO GUZTIAK	1017	198	74

Oraindik badira esleitu gabeko olanak eta karpak. Uztailaren 31n amaituko da zozketan lortu ez zituzten interesdunei zuzenean saltzeko epea.

Hiruna **gabarroi** dituzte Kontxako eta Ondarretako hondartzek, eta Olatu Talka jaialdia igaro ondoren jarriko dira. Horiei, suzirietarako plataforma gehitzen zaie, gabarroi gisa erabiltzen baitute.

BESTE ZERBITZU BATZUK

Donostiako hondartzak **EMAS** eta **ISO 14001** kalitate ezaugarriak dituzte, eta beste zerbitzu batzuk eskaintzen dituzte denboraldian, hala nola, Tintin Kluba Zurriolan (900 m²) Ondarretan (600 m²), Zurriola hondartzako **hamakak** (600 m²), **boleibol kantxak** (600 m²), Ondarretako **piragua** lekua (30 m²) eta izozki eta taberna kioskoak (hiru hondartzetan). Erreserbatutako eremu bat dute ezgaitasundun pertsonen ere, Ondarretan nahiz Kontxan.